

## **KONTROL MOZIOA**

### **UDALTZAINEN KONTRATAZIOARI BURUZKOA**

Jabier Vitoria Romak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, **kontrol mozio** hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko uztailaren 14an Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Duela hilabete batzuk Udal Gobernuak interpelatu genuen udaltzainak kontratatzeke formularik egokiena zein zen galdetzeko, propioa edo bateratua, eta eskatu genion aztertzeko Udalak berak kudeatutako Lan Eskaintza Publiko (LEP) propioa bultzatzea eta onartzea, Udaltzaingoaren kontratazio finkoen eta behin-behinekoen beharrei erantzuteko.

Udal langileen ordezkariak azken egun hauetan berriro adierazi dute eredu bateratuak gabeziak dituela.

Halaber, aurreratu zuten uda honetan egoera berriro errepikatuko zela, eta Arkautetik ezin izango ziotela erantzun, ez kopuruan ez denboran, udako programarako Donostiako udaltzainen beharrari.

Urtero udarako Udaltzaingoaren plantilla indartzen da bitarteko agenteekin, lehenago lan-poltsa propioetan oinarrituta, eta azken urteetan, Arkauteko lan-poltsa bateratutik.

Uda aurrera doa eta aipatu batzordean Udal Gobernuak arazoa dagoela onartu zuen arren, ez daki ez zenbat ez noiz iritsiko diren baliabide horiek.

Esperientziak erakusten digu lan-poltsa bateratuak ez direla funtzionatzen ari, ezin direla beharrezko errefortzu guztiak bete Arkauteko lan poltsan giza baliabiderik ez dagoelako.

Hiritarrei hurbileko zerbitzu bat eskaini nahi badiegu, funtsezkoa da nahi ez diren egoera horiek saihestea, eta uste dugu gakoa udako programarako Donostiako udaltzain horiek kontratatzeke prozedura birplanteatzea dela.

Horregatik guztiarengatik behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 [eh\\_bildu@donostia.eus](mailto:eh_bildu@donostia.eus)-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus)

1.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari bultza dezala bitarteko udaltzainen lan poltsa propioa onartzea eta martxan jartzea Udaltzaingoaren kontratazio behin-behinekoen beharrei erantzuteko.

Donostian, 2025ko uztailaren 17an



Jabier Vitoria Roma  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**